Azken kritikak

- **Maitasunaren indarra**
  Gabriel Korta
  Igor Estankona
- **Nola heldu naiz ni honaino**
  Kattalin Miner
  Hasier Rekondo
- **Herioren mandataria**
  Joseba Lozano
  Mikel Ayerbe
- **Kixotenean**
  Iñigo Astiz
  Javier Rojo
- **Azken zakatzak**
  Martxel Mariskal
  Gorka Bereziartua
- **Ispiluen arteko zirriborroak**
  Amaia Iturbide
  Alex Gurrutxaga
- **Politikaren atarian**
  Rikardo Arregi
  Aritz Galarraga
- **Nola heldu naiz ni honaino**
  Kattalin Miner
  Iratxe Esparza
- **Argiaren hautsa**
  Luis Elizetxea
  Hasier Rekondo
- **Ez lemaio**
  Juan Kruz Igerabide
  Javier Rojo

« Guztion isla | Agian arteak du erantzuna »

Dorrearen eta penduluaren arteko ituna / **Amaia Iturbide** / Erein, 2016

Ez erasotzeko ituna Igor Estankona / *Deia*, 2017-03-18

Erromantikoa, sinbolista, uneka surrealista ere bai, Amaia Iturbide bere betiko bideetatik abiatu da *Dorrearen eta penduluaren arteko ituna* (Erein, 2016) honetan ere. *Eszenatokietako aztarnak hasten direnean* (Erein, 2011) irakurri nuenean geratu zitzaidan antzeko sentsazioa bizi izan dut oraingoan ere, alegia, poesia hermetikotik eta kriptiko xamarretik arintasunera eta esanahira momentu batean pasarazten zaituela. Bere beste lan batzuk dira *Eskaileraren bi aldeetan* (Erein, 1986), *Itzulbidea* (Erein, 1992), *Gelak eta zelaiak* (Erein, 1994), *Lore mutuak eta tuaren ezkontzak* (Atenea, 2006).

Dorrearen eta penduluaren hautuak bere esplikazioa badauka: "Dorreak irmotasuna adierazten du. Pendulua, berriz, aldaketaren sinboloa da, baita orekarena ere. Dorrea buruaren sinonimotzat jo daiteke eta pendulua, berriz, bihotzaren parekotzat, biak elkarren beharrean ari direlarik".

Eta gogora ekarri badit honako azken lan honek 2011ko poemario hura, berritu egin dit halaber *Labirintoaren orduak* (Erein, 2008) irakurri nuenean geratu zitzaidan aho zaporea. Amaia Iturbidek hitzak baliatzen ditu —edo berauek ostean daukaten irudia—, keinuz beteriko igarobideak sortzeko. Mugak beti harago eroanez eta esperientziaren puruz diskurtsoa landu du. Emaitza poesia sano pertsonal bat da, baina baita zurrun eta hotza ere. Inoiz existitu ez den ideialari testuingurua jartzen dio idazleak: "Gontzetan sartutako iturritik eta/ gauaren erditik aterata,/ mozorroa atzeraikuspena da/ kontajario mutua./ Basamortuari beste basamortu bat/ eransten dio beti". Beraz kontradikziotik —kontajario mutua— eta baturatik —basamortua basamortuaren gain— ulertu behar dira liburu honetako —are, Iturbideren obrako— mezuak.

Gertaera edo deskribapenik ez itxaron: emozioa erdiesten da maila intelektualean, diskurtso ia-ia filosofikoaren baitan: "Izan nintzen edo izan nahi nuen,/ baina ez nintzen ezer izan,/ harea pikorra baino ez/ historia liburu bateko orrialdeen artean". Eta lehen ere esan dugunez, poesia eite hori urruna gerta daiteke, eta zaila ere bai.

Artxiboa

- Apirila 2017
- Martxoa 2017
- Otsaila 2017
- Urtarrila 2017
- Abendua 2016
- Azaroa 2016
- Urria 2016
- Iraila 2016
- Abuztua 2016
- Uztaila 2016
- Ekaina 2016
- Maiatza 2016

Aurreko urteak

Hedabideak

- Berria (863)
- Argia (858)
- El Diario Vasco (813)
- El Correo (737)
- Gara (555)
- Egunkaria (505)
- Deia (362)

PDF created on http://www.htm2pdf.co.uk via the HTML to PDF API

Idazlan guztiak
Teresa Avilakoa
Jose Luis Padron

Elur bustia
Pello Lizarralde
Igor Elordui Etxebarria

Parranda
Eduardo Blanco Amor
Gorka Bereziartua

Nola heldu naiz ni honaino
Kattalin Miner
María Unanue

RSS 2.0

Obra guztian antzematen zaio hori Amaia Iturbideri. Gaitasuna badauka bilboztarrak zail esateko begien bistakoa, eta erraz adierazteko, ostera, misterioa: "Oroimenean beti eduki arrainen zilarraren eta/ harea alearen urrearen ondasuna,/ trenen isiltasun luzea eta/ itxaroten irakatsi dizuten geltokiak,/ barrutik egituratzen zaituzten/ zuhaitzaren enbor azala eta/ errekaz eginiko esaldia". Bere unibertso poetikoan egutegiak daude, Gabonak datoz, gaua da, dena doa aurrerantz bezala. Sakonean, ordea, mitoaz ari da uneoro, hizkera bat darabil polisemikoa. Erreala dena bat-batean bihurtzen du irreal. Deskribatzen du gizakia mila eratara. Azpitik egiten den maila sinbolikoko hausnarketa hori da hain zuzen irakurlea daroana sinestera metafora dela egia, eta egia errebelazio bat: "Arantzazko koroa darama/ eta bere buruaren jabe da".

Dena dela, bilaketa filosofikoa, erlijiosoa edo estetikoa izan, liburuaren 139 orrialdeak irakurri eta gero halako hutsaltasun irudipen bat izan dut bat-batean. Amaia Iturbideren bideak arriskutsuak dira, erretorikaren alderik txarrenak azalerazi ditzake. Ez du jakin askotan idazkera hanpatu eta barroko biguntzen. Karga-karga eginda datoz zenbait pasarte, zenbait gogoeta historiko-filosofiko.

El País (151)
Aizu! (146)
Irunero (122)
Zeruko Argia (97)
Egin (77)
Hegats (62)
Besterik (1416)

PDF created on http://www.htm2pdf.co.uk via the HTML to PDF API